

IKERTZAILE DOKTOREENTZAKO MUGIKORTASUN PROGRAMARAKO DEIA, EUSKO JAURLARITZARENA (2022)

Deialdiaren helburua:

Dedikazio eskusiboarekin, ikerketa-zentroetan egonaldiak egitea; batetik, I+G+B zentro eta erakundeetako ikertzaileen eta unibertsitateko irakasleen mugikortasun geografikoa bultzatzeko, eta, bestetik, ikertzaile-taldeen lehiakortasuna eta gaitasunak hobetzeko.

Egonaldian zehar, ikertzaileek ikerketa proiektu bat garatu beharko dute, zeina talde hartzailearen lan-ildoan integraturik dagoen; edo, bestela, goi mailako lortura eta elkartrukeak ezartzera bideratutako jarduerak burutu beharko dituzte.

Modalitateak:

- A modalitatea: ikertzaile seniorren mugikortasuna, langile iraunkorrei zuzendua.
- B modalitatea: ikertzaile juniorren mugikortasuna, langile ez-iraunkorrei zuzendua.

Egonaldia egiteko zentroak:

- Honako hauek izan daitezke helburuko zentro: laguntza-eskabideak aurkezteko proiektu zientifikoaren arloan, prestigio akademikoa eta ikerketakoa aitortua izanik ikerketa-funtzioak esleituz dituztenak.
- Helburuko zentroek, betiere, eskatzen diote izangaiari bizileku finkoa izan dezala mugikortasun-aldi osoan zehar.
- EAEz kanpo egon beharko dute helburuko zentroek.

Egonaldien ezaugarriak:

- 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egon beharko du egonaldiaren hasiera egunak.
- Egonaldiak, gutxienez, 2 hilabetekoak izango dira eta, gehienez ere, 6 hilabetekoak, etenik gabe egin beharko direnak. **GARRANTZITSUA: eskabidean adieraziz gero egonaldia sei hiletik gorakoa izango dela, ezetsi egingo da eskaria zuzenketarako aukerarik eman gabe, nahiz eta sei hileko egonaldia eskatu.**
- Ikertzaileko, egonaldi proiektu bakarrerako izango da laguntza.
- Proiektua helburuko zentro bakar batean egingen da.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- A modalitatea: langile iraunkorra izatea edo kontratu mugagabea edukitzea; besteak beste, agregatua edo titularra izateko akreditazioa duten irakasle atxikiak.
- B modalitatea: langile ez-iraunkorra izatea. Indarrean den loturaren iraunaldia gutxienez mugikortasuna amaitu artekoa izan behar da; besteak beste,

akreditaziorik ez duten irakasle atxikiek, Ramon y Cajal ikertzaileak eta Juan de la Cierva ikertzaileak.

Baldintza orokorrak:

- **Zerbitzu aktiboan** egotea egiaztatutako lan loturan, funtzionariala nahiz kontratuzkoa izan. Hautagaiak erakunde eskatzailearekiko duen lan loturak egonaldi osoan iraun beharko du.
- **Doktorea izatea** 2017 baino lehenagotik.
- Gutxienez **bi urteko antzinasuna** izatea UPV/EHU. Irakasle atxikien lotura duten ikertzaileen eskaerak onartuko dira, betiere irakasle agregatu edo titular gisa egiaztatuta badaude eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean. **Salbuespenez**, deialdi honetan parte hartu ahal izango dute irakasle agregatuen kategoriako irakasleek edo, irakasle iraunkor gisa 2 urteko antzinasuna ez izangatik ere, aurretik alboko irakasle gisa kontratuak izan direnek.
- Programa honetatik zein antzeko ezaugarriak dituen beste edozeinetatik laguntzarik ikerketa-zentroetan egonaldiak egiteko 2020an edo 2021ean jaso ez izana.
- UPV/EHUko ikertzaileek laguntza horiek jaso ahal izango dituzte, betiere ikerketa-talderen batean egon (**GIC**) eta talde horrek euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen «A» edo «B» taldearen delako errekonozimendua jaso eta **indarrean** badu.

Baldintzak eskaera aurkezten den unean bete beharko dira, bai eta egonaldia hasten den egunean ere.

Eskabideak aurkezteko epea:

2021eko abenduaren 7ra arte (egun hori barne).

GARRANTZITSUA: Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura elektronikoa

Eskaria epez eta formaz aurkeztutakotzat jo dadin, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren sinadura elektronikoa izan beharko du.

UPV/EHUko eskatzaileek **2021eko abenduaren 2ko 8:00etara** arte aurkeztu ahal izango dute eskaria. Ezin izango da balioztatutako epe hori amaitu eta gero aurkeztuko litzatekeen eskaririk.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak UPV/EHUko eskatzaileentzat ezarritako laguntza zerbitzua 2021eko abenduaren 7a EZ da egongo zabalik errektoretzan jai delako.

Aurkeztu beharreko agiriak:

Beherago zehaztutako agiriak jaso behar dira eskabidean:

- Egonaldian egingo den ikerketa-proiektuari buruzko memoria.** Gehienez 3 orri.
- Hautagaiaren **CVa**, inprimaki normalizatuan.
- Zerbitzu-orria.** Irakasle ondokoentzat, irakasle agregatu edo titular gisa egiaztatzeko kopia.
- Ikerketa jardueraren aldi baterako etena** justifikatzen duten **egiaztagiriak**, 11.2.b. artikuluan jasotako kasuen arabera (iraupen luzeko aldi baterako lan ezintasuna, amatasuna, aitatasuna, edoskitzaroko arrisku egoera, umeen adopzioa edo harrera).
- Talde hartzailearen historia zientifikoa eta akademikoa**, zeinetan jasoko baita ikertalde hartzailearen arduradunaren azken sei urteetako CVa.
- Laguntza jaso gero, **ikertzaile-taldeko arduradunaren konpromisoa, bere taldean hautagaia** -eskatutako epealdian zehar- **onartzeko dena.**
- Hautagaiari lizentzia ematea edo eskabidea erregistratua**
- Hautagaiari zein ikertzaile-talde hartzaileko arduradunari dagokionez, ikerketa-jardueraren kalitatearen adierazleei buruzko laburpen eguneratua** (argitalpen zientifikoak, ikerketa-proiektuak, biltzarrak, tesiak, patenteak). Aplikazioak dokumentu horien txantiloia bat du.

Eskaria egiteko prozedura:

Eskabideak bide telematikoz aurkeztu behar dira, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egoitza elektronikoan:

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2022/ikermugikortasuna/web01-tramite/eu/

UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEAREN SINADURA LORTZEKO PROZEDURA:

EPEA	IZAPIDEA
<p>2021eko abenduaren 2ko 8:00ak arte</p>	<p>Erantzukizunpeko aitorpena beteta bidali, hautagaiak sinatuta, hona: convocatorias.dgi@ehu.es (Webgunean eskuragarri dago txantiloia).</p> <p>Barne dokumentu bat da, aplikaziora igo behar ez dena.</p> <p>Online eskaria bete eta beharrezkoak diren dokumentuan aplikaziora igo. <u>Eskatera itxita egon behar da, Ikerketaren arloko errektoreordeak digitalki sina dezan.</u></p> <p>Eskatzaileak eskaria eta aplikazioan sartutako gainontzeko dokumentazioa (PDF formatuan) bidali behar ditu hona: convocatorias.dgi@ehu.es</p>

	Ezin izango dira balioztatu data honen ondoren bukatutako eskariak.
2021eko abenduaren 3a	Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eskariak aurkeztuko ditu Errektoreordearen sinadura digitalaren bitartez. Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren UPV/EHUko erabiltzaileei laguntza emateko zerbitzua 15:00ak arte egongo da zabalik.

Informazio gehiago:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, z/g, posta kodea: 48940, herria: Leioa (Bizkaia)
- **Ordezkarri legala:** INMACULADA AROSTEGUI MADARIAGA, kargua: Ikerketaren Arloko Errektoreordea.
- **E-mail:** convocatorias.dgi@ehu.eus

UPV/EHUrekiko harremana:

- Tfn.: 94 601 8008
- E-mail: convocatorias.dgi@ehu.eus (gaian hau jarri: IKERMUGIKORTASUNA)